



**17. korrika** æk **TREBIÑU-DONOSTIA**  
2011ko apirilaren 7tik 17ra

**Euskalakariak gara munduan euskaraz bizi nahi dugulako eta mundua euskaraz bizi dugulako...**

**Euskalakaria da, “Niri kostatzen zaidan asko baino nik nahi dut euskaraz hitxegin eta zu niri euskaraz!” esaten duen José.**

**Euskalakariak dira sarean euskaraz ari diren marituentei eta feizbukari guztiak.**

**Euskalakari ditützü prefosta, euskara arraesküratzen eta hurrekin euskaraz mintzatzen diren Allande ta Maider.**

**Euskalakari Edurne eta Mohammed, Aste Nagusian elkar ezagututa, euren arteko maitasuna euskaraz gozatzea eta amodioa euskaraz egitea erabaki zutenetik.**

**Euskalakari dira arauak eta hiztegiak prestatzen orduak ematen dituzten euskaltzainak eta EGA titulua atera ezinik dabilen Mireia.**

**“Merkealdia” kartela jarri duen Koldo ere euskalakari.**

**Euskalakaria da bere denboraren zati bat Mintzakide egitasmoari eskaintzea deliberatu duen Eli.**

**Euskalakari izateko mila modu dago, baina euskararekiko eta gure herriarekiko maitasunak biltzen gaitu guztiok.**

**Eta ezin da euskalakari izan euskaraz egin barik, euskaraz berba egiten ahalegindu barik.**

**Euskalakariak gara, euskara maite dugunez euskaraz maitatzen dugun bakoitzean.**

**Euskalakari, bizitzari txinpartak atera nahi dizkiogulako eta horretarako euskara bizia eta txinpartaduna behar dugulako.**

**Lana euskaraz egiteko euskararen alde lanean ari garelako.**

**Euskalakariak gara euskaraz sortzen dugunean, euskara sortzen ari garela sentitzen dugulako.**

**Hizkuntza guretzat poza eta haserrea delako, barreak eta malkoak euskaraz sortzen zaizkigulako, euskara egunero-egunero, erabiltzen, hobetzen, eraikitzen eta zabaltzen dugun mundu bat delako.**

**Euskalakariak gara euskaldunok munduan leku bat behar dugula sinesten dugulako, koloreak eta aniztasuna maite ditugulako, Euskal Herri zahar honen iraganari etorkizuna bermatu nahi diogulako.**

**Euskalakari gara euskara maitatzen, ikasten eta erabiltzen dugulako.**

**Gu euskalakari, zuek euskalakari, denok euskalakari!**

**ILASKI SERRANO ETA KIKE AMONARRIZ**